

## Aiherra

1 septembre 2011

**Igandean, Kermeza Denen Etxean !** - Bi urtetarik, aldizka Izturitzen edo Aiherran antolatzen den kermeza edo parropiaren pesta, aurten gure herrian egiten da, hain zuzen igandean, irailaren 4ean.

Langile batzu ari baitira jo ta ke pesta hunen prestatzen, huna aurtengo egitaraua.

Meza nagusia 9ak eta 1/2tan. Ondotik askaria kafe edo xokoletesnearekin. 11tan 2 pilota partida, Abarratiako gazteen artean. Eguerditik goiti, bazkaria : salda, arroltze moleta biperrekin, entrekosta lur sagar freituekin, entselada, gasna, izozkia eta kafea bere ondokoarekin. Aurtengo berezitasuna : bazkaria zerbitzatua izan dena mahainak bete arau. Horiek guztiak, 20 eurotan, eta 10 eurotan haurrentzat. Bazkari denboran animazio desberdinak izanen dira : kantari, musikari, xingar piztate eta beste. Ondotik, zozketa : aurten lehen saria aste bat bakantza 2 laguntzat, Espainia hego aldean ! Beraz ongi etorri deneri eta igande arte !

**Larrondoberriko Beronika Saint-Jean-ek 100 urte !!** - Herritar batek 100 urte betetzea ez baita usu gertatzen, hau berri ona ! Hau gertatu zaio Larrondoberriko Beronika Saint-Jeani, joan den agorriaren 6an, eta goxoki ospatu dute familian, batez ere Janina alaba eta Beñat suhiaz



Beronika Saint-Jean-en irrihoa 100 urtetan !! Zorionak !!

Beronikaz orroitzapen onak atxikitzen dituzte, hain zen emazte langilea, dinamikoa eta jite onekoa. Bizi luze eta lorios bat opatzen diogu Beronikari.

**Herri erdiaren berpizteko obren egitasmoarentzat, inkesta** - Aiherrako herriko etxeak jakinarazten du, herri erdiaren berpizteko gisan egin behar lur erosteentzat, EPFL deitu erakundeak inkesta bat eginen duela, irailaren 5etik irailaren 23a arteko epean.

Xehetasun guztiak herriko etxean daude, eta edozoin herritarrek oharrak egin lezazke herriko etxean, irailaren 5ean, astelehenez, 9etatik eguerdi arte, irailaren 15ean, ostegunez, arratsaldeko 2etatik 5ak arte, edo irailaren 23an, ostiralez, arratsaldeko 2etatik 5ak arte.

inguraturik. Alabainan, 2008 urtean Matin semea galdu zue-nean, hauen etxera joan zen bizitzera, Tarnosera. Halere, hain maite zuen herria ez du ahanzten. Aiherrtar gehienek

## Aiherra

8 septembre 2011

**Kermeza ondo** - Joan den igandean, kermeza ongi iragan da, duela 2 urte bezenbat bazkaltzale etorri baita. 200 bat lagun dira beraz bildu, mahain on baten inguruan, aurten biziki preziatua izan delarik goizik zerbitzatzeko eta beraz bazkaltzako ahala. Mahainak bete arau, jendeak zerbitzatuak izan dira. Giro onean iragan dira pilota partida, zozketa eta bazkari.

Zozketa nagusiko lehen saria Aiherran berean gelditzen da, hain zuzen Berretabehereko Piarra eta Maiena Iribarren jaun andereek baitute lehen saria irabazi : aste bat bakantza Malgrat de Mar, Katalunian aurkitzen den leku ederrean, Bartzelonatik ez hain urrun. Gisa huntako pestak, parada ona dira herritarren artean kurutzatzeko eta elgar ikusteko. Aurtengo kermeza

iragan da. Manera berean iragan dadila luzaz !!


**Karate, berriz hasten** - Kirol guzieren artean horra berri bat duela 2 urte lehen aldikotz agertu zaukuna gure herrian : karate ! Papertxo batzuen bidez jakiten dugu elgarraratze eta ikastaldiak Aiherran abiatuko direla heldu den astean, buruilaren 14ean, Denen Etxean. 5 urtetarik goiti gazteak hasten ahal dira.

Tony Etcheverry baionesa, hunen zuzendari eta erakaslea da. 1985ean eta 1986an, Frantziako ekiparekin trebatu da. Egun bere ikasleek xapelketa askotan parte hartzen dute. Ikastaroak Aiherrako Denen Etxean iragaiten dira. Xehetasun gehiagorentzat, deitu Tony Etcheberry : 06 82 23 70 38.

## Aiherra

15 septem bre 2011

**Ondarearen egunak** - Ohi bezala, Uhaguneko eiherrak atek idekiko ditu aste-buru huntan, larunbatean eta igandean, arratsaldez (14:00) - (18:00).



Argitxu Noblia, Uhagune aitzinean

## Aiherra

22 septem bre 2011

**3. adinekoak, Antzuolara pidalaz** - Nolzenka pidalak egiten dituzte gure 3. adinekoek, Izturitar, Donamartitar eta Donoztirtarrekin. Aurtengo pidaia helduden urriaren 6an dute, ostegunarekin, eta Antzuolara eta Arantzazura buruz abian zauzkigu.

Horra egun hortako egitaraua : Abiatzea 7:30tan Donoztiritik, 07:40tan Donamartiritik, 7:50tan Izturitzetik eta 8:00tan Aiherratik, 10:30tan Antzuolara heltzea ; Inma Berztain andere auzapezaren ongi etorria, eta Antzuolako Herriko Etxeak eskaini hameketakoa. Ondotik, laborarien tresna asko fabrikatzen dituen Goizper kooperatibaren bisita, eta jo Arantzazura buruz. Han bazkaria Arantzazu ostiatuan. Ondotik, komentuarren bisita. Etxerareko bidean, gelditze bat Behobin. Pentsatzen dute arratseko 8tan sartuak izanen direla. Bazkarian, entselada mixta, barazki menestra, legatza labean, oilasko ister erreak, gasna edo sagar bixkobxa, arno eta kafearekin. Orotara, 34 euro gostako da bakoitzari. Txekak, "Gotti alre" elkartearen izenean egin behar dira. Izenak, irailaren 23ko eman behar dira edo Maddi Larre Bixta Ederrekoari (05 59 29 56 27) edo J. Pierre Sainte Marie Xedarrikoari (05 59 29 64 54).

**Antzuolarrek, Aihertarrak gonbidatzen, urriaren 23an** - 27 urte du Aiherra eta Antzuola herriak adixkidetu zirela. Funtsean, joan den urteaz geroz, bi herri haue-tako sartzelaan, pankarta handi batzuek orroitzatzen dute hori.

Naturalki egiten diren elgarretaratzeetaz kanpo, 2 herrien artean egun bereziak antolatzen dira, urtean behin, adixkidetasun hau ospatu eta indartu nahian, urte aldizka. Batek bestea errezebituz, aldizka han edo hemen, aurten Antzuolaren aldi Aiherraren errezebitzea. Urriaren 23an gaituzte hara gonbidatzen. Egitarauaren berri ukanean dugunean, jakin araziko dugu hemendik beretik. Anartean, atxik egun hori, Antzuolara joaiteko, autobusez.

**Gorputz soinketa ostegunetan** - Eskola sartzeeikin betan, horra negua aitzin, gorputzaren mugitzeko beharra. Gure herrian, emazte talde bat biltzen baita astero, gimnastika edo soinketaren egiteko, jakin dezatela ostegun arratselan elgarretaratuko direla Aiherrako Denen Etxean, arratsko 7etatik Bak arte. Xehetasun guzientzat, deitu Marie Claude Biscay anderea 05 59 29 43 63ra.

**Herri barnean saneamendu sarearen hedatze** - Obren hedatzea, "Estekatea" aldean eta RD 251 gainean, bururatu berria da. Berrogei bat etxe lotuko dira sariari. Horrela, kasik herri barne guzira saneamendu kolektiboari



Saneamendu kolektiboan sartzeko, obrak etxe inguruetan

lotua da. 2008an sarea sortua izan zenetik eta gaur arte, 1 200 000 € baino gehiago inbertituak izan dira.

**Abisu** - Larrarteko Jenofa Oyhenart andereak, bere etxe aitzineko arroilan, zilo egiteko tresna bat atxeman du, auto edo kamium tipji batetarik galdua. Galdua duenak aski du herriko etxera joaitea. Han xehetasun guztiak emanen dazkote.